

BERRIGARA

62. zenbakia

JARDUN Elkarte Bergara

1994, irailak 23




Zinearen izkutuko aurpegia



ZU BAKARRIK
ZARA NIRE AUTOA.

OPEL CORSA
NIRE AUTOA



OPEL

10^o
URTEURRENA

TALLERES
OLA

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44/45

BERGARA (Gipuzkoa)

Erakusketa ARRASATEn:

Loramendi, 2. Tfnoak: 79 05 86



GUIPUZCOANA

Paketean garraio eta banaketa

BERGARA

San Juan Erreka. Elgetara bidea

Tfnoa: (943) 76 36 42 / Faxe: (943) 76 54 25

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara.
Tfnoa eta faxa: 76 03 97

Argitaratzailea:

Jardun Elkarte
Masterreka, 13. 20.570 Bergara.

☎ 76 08 19

Zuzendaria:

Gorka Elorza.

Erredakzioa:

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil eta
Mikel Elkoroberezibar.

Maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo Mendibil.

Publizitatea eta harpidetzak:

Alex Azkarate eta Gorka Elorza.
☎ 76 03 97

Kolaboratzaileak:

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola,
Miguel Angel Elkoroberezibar, Alex
Labaien, Iñaki Eraña, Juan Martin
Elxepuru, Josu Oregi, Maripi Laskurain,
Nerea Aizelai, Ainhoa Lete, Jon Ander
Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika
Belastegi, Aitziber Aretxaga eta Ainhoa
Bikuña.

Komikia eta marrazkiak:

Bittor Rodriguez, Gorka Ortega, Jon
Alvarez, Jose Martin Ezenarro
eta Julian Ezenarro.

Banaketa:

Txantxangorri Taldea.

Tirada: 3.700 ale.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

Copyright: BERRIGARA

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599


BERRIGARA ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanena eta iritzien
erantzunkizunik.



Aldizkari honek
Bergarako Udalaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Euzko Jauriaritzako Kultura
sailaren laguntza jaso du

Z E R B E R R I D A ?

RICARDO MURILLO *Bergara Racingeko presidentea*

**- Aurten egongo al
da Gorlako Kotxe
Igoera ?**

- Ez, batez ere diru
arazoengatik. Aurreko
urtean oso subentzio
ona jaso genuen Uda-
letik (3 milioi t'erdi in-
guru) baina aurten ez
digute hainbeste ema-
ten eta aurrekontua al-
tuegia da. Iaz 8 milioi
ingurukoa izan zen eta
dirulaguntza arrunta-
rekin horri aurre egitea
oso zaila da. Apostua
fuertegia da gaur egun
bizi dugun egoerarako;
momentuko egoera
ekonomikoa ez da one-
na eta benetan zaila da
publizitatea eta babes-
leak topatzea.

**- Beste probarik
antolatzeke asmorik?**



- Ba horretan gara.
Zerbait egin nahi dugu
baina ez dakigu zer.
Karten lasterketa bat
agian baina Udaletxeko
obrekin trafiko arazoak
dira... aintzinako ko-
txeen konzentrazioen
bat... Ez dakigu eta da-
tozen asteetan zerbait
erabaki beharko dugu
horren inguruan.

**"Diru arazoengatik aurten ez da
Gorlako Kotxe Igoerarik izango"**

I T U R R I O N E T I K

Hondakinen Deposito Alternatiboa azaroan inauguratuko da

Azaroaren lehenengotan inauguratuko da
Zerrajerako lehengo eskonbreran egin berri den
Hondakinen Deposito Alternatiboa. Deba
Garaiko Mankomunitatea izango da jostorea eta
Bergarakoaz gain, Arrasaten eta Oñatin ere
honen moduko beste bi deposito izango dira.
Bertan hondakinak sailkatu egingo dira 6
kontenedoretan eta batez ere etxeetako
hondakinei zuzendua izango da. Bergarako
Udalak lurra lortu ondoren, Diputazioak 30
milioi inguruko aurrekontuarekin egin du
Bergarako Deposito Alternatiboa.


ESAN DUTE

"Gure ohizko basoen
oreka edo
dibertsitatea lortzeko
ez ote da denon
laguntza behar?
Basoak ondo zainduak
eta arbola mota
desberdinez jantziak
izateak abantaila ugari
ditu, tartean gure
gozamina, baina bere
kostea ezin du
baserritarrak bakarrik
ordaindu. (...) Ez
ahaztu gure lurtean
justu hemendik
aurrera izaten dela su
arriskurik haundiena.
Kontu izan!
Ikusitakoaren
paregabekotasuna eta
jendetza honen
bizimoduak ez dezala,
poxpolo kaxkar bat
dela eta, bere azkena
aurkitu"

**MAITE ARISTEGI
EHNEko abokatua
EGIN**

"Ona da gazteek
politika bazter uztea,
horrek gauzak
askatasun haundiagoz
ikusteko aukera
ematen duelako. Dena
dela, gizarte honek
erabaki beharko
lituzkeen eztabaida
batzuk alde batera
uzten ari dira, eta hori
arriskutsua da oso"

**MARI CARMEN
GALLASTEGI
Ekonomilaria eta
irakaslea
ADMINISTRATIOA
EUSKARAZ**



WYATT EARP

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 18.30, 22.30.

Igandea: 18.30, 22.15.

Astelehena: 19.30.

Asteartea: 19.30 (Ikuslearen eguna).



RUSTICOS EN DINEROLANDIA

Igandea: 11.30.

Zinea

▼▼ **Lawrence Kasdan** zuzendariak (*Fuego en el cuerpo, El turista accidental*) hainbat jenerotan bere maila erakutsi du, tartean *westernaren* gaurkotzearen alde lan eginez (*Silverado*). Azken honetan O.K. Corraleko gertakizunak eta *Wyatt Earpen* leienda berreskuratu du. Horretarako aktore ezagun multzo batez inguratu da: **Kevin Costner, Dennis Quaid** eta **Gene Hackman**. Adi ordutegiarekin!

▼▼ Berriz ere badator gaztetxoentzat igandero *matinala*. Hasteko, komedia bat. *Clampets* familiak petroleoa topatu ondoren, *Beverly Hillsera* joango da bizitzera; han aberatsen modak eta ohiturekin zoratu egingo zaizkigu. Beren bizitza egoera berriari moldatzea nahi baino gehiago kostatuko zaie. **Jim Varney, Cloris Leachman** eta **Erika Eleniak** aktoreak erreperto buruan.

Deiak

▼ **EAJren** Alderdi Eguna igandean. Irteera 9etan Beheko Estazioetik (txartelak Batzokian).

▼ **Argazkiak**. Benito Cantero eta Agustin Gurrutxagaren lanak Azkoitiako Basterretxe kafetegian.

▼ **Egin** egunerako autobusak igandean 9etan Frontoian. Txartelak Pol-Pol, Kortazar eta Arranon.

▼ **AEKk** antolatutako kale antzerkia igandean 18.30etan Plazan.

Ogia

▼ **Igandea 25:** Mizpildi.



GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 23:** Guallar/Español.
- ▼ **Larunbata 24:** Estella/Corcuera.
- ▼ **Igandea 25:** Estella/Irizar.
- ▼ **Astelehena 26:** Mozos/Amezua.
- ▼ **Asteartea 27:** Camacho/Ruiz.
- ▼ **Asteazkena 28:** Puy/Morales.
- ▼ **Osteguna 29:** Guallar/Azkoaga.

**BERGARAKO AKULU
AEK EUSKALTEGIA**

EUSKALDUNTZE, ALFABETATZE ETA
EGA IKASTAROAK
2, 3 eta 5 ORDU

INFORMAZIO GEHIAGO:
Masterreka 13, behea ☎ 76 06 18

Euskarak merezi du!!

ANTIA

ARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri,
bildots, untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

**ZUBIAURRE
aroztegia**

SARRERAKO ETA BARRUKO ATEAK,
HORMA ARMAIRUAK,
EGURREZKO ETA PVC-ZKO LEIHOAK,
ERA GUZTIETAKO AROTZ LANAK.
Zubiaurre, 2 ☎ 76 15 14 / 76 35 73

Antzerkia

LA MASCARA

Kolonbiako La máscara antzerki taldeak "Bocas de bolero" lana antzeztuko du

Caliko (Kolonbia) *La máscara* antzerki taldeak "Bocas de bolero" antzezlana eskeiniko du larunbatean arratsaldeko 7 t'erdietan Zabalotegiko aretoan. Cardiffen (Gales) izan ondoren eta Madril, Cádiz eta Sevillara bidean, talde kolonbiarrak gure herrian parada egingo du. Miren Urkijo antzerki zuzendari bergararra Kolonbiako *La Candelaria* taldearekin lanean eta ikasten izan zenean, *La máscara* taldekoak ezagutu zituen. Hori dela eta, kolonbiarren lana ikusteko aukera izango dugu larunbatean. Miren Urkijoren hitzetan, "larunbatean danza-teatro ikuskizun bat ikusi abal izango dugu. Antzezlaneko testuak oso ezagunak zaizkigun boleroak dira eta parte hartzen duten 4 aktoresek testuak abestu eta esaten dituzte".

Miren Urkijo beraiekin izan da Cardiffeko Ema-



Antzeztokian 4 aktorea ikusiko ditugu igandean.

kumeen Antzerki Jaialdian eta berak azaltzen digunez, "jaialdiko onenak izan dira: guztira, 10 egunetan, 30-40 ikuski-

zun eskaini dira eta kolonbiarrek, Bergaran ikusiko dugun lanaz gain, "Emocionales" eta "Luna menguante" an-

tzeztu dituzte. Pena bat da Bergarara hirurak ez ekartzea baina ezinezkoa izan da. Hala ere aukera ezinborea da hone-lako talde bat ikusteko, kontutan izanik gainera Europara etortzen diren lehen aldia dela. Nabiz eta emakumez bakarrik osatua egon, *La máscara*, jatorriz, ez da emakumeen talde bat. Orain 20 urte sortu zen eta orain Calin beren egoitza propioa izatea lortu du".

*La máscara*rek, azken 20 urteotan, hainbat lan eskeini ditu munduan zehar, tartean "No saco nada de la escuela" (Luis Valdesen lanean oinarrituta, 1972), "Una historia vulgar" (Pablo Neruda, 1973), "El viejo militante" (Bertolt Brecht, 1976), "MacBeth" (Shakespeare, 1977) edota "Las viudas" (krazio kolektiboa, 1989).

Larunbateko emanaldia, esan bezala, 7 t'erdietan hasiko da eta sarre-rak 400 pta. tan jarriko dira salgai (300 ikasle, langabetu eta jubilatuentzat). Ikuskizuna Zabalotegiko dorrepean izango da.

Dantza eta antzerkia nahasten ditu, Gales aldean ibili ondoren Bergararara datorren Caliko taldeak

MEMESA

ARRASATE 79 42 22 ARETXABALETA

P
phanton

IRIMO

SFK

Ertzantza euskalduna.**Ja, ja, ja.**

Nere kasua bakarria ez dela eta es-
kutitz honek ezer konponduko ez duela
jakin badakidan arren, barruko amorrua
kanporatzeko balioko didan esperantzaz
kontatu nahi dizuet joan zen irailaren
1ean lanetik oinez etxerako bidean lasai
lasai ordubiak aldera nindoala ertzain
batekin gertatu zitzaizana.

Esan bezala, San Lorentzo poligo-
noan, Larrañaga garajejan dagoen apar-
kaleku parean, Ertzainen kotxe batetik
"Tu de dónde eres?" galdera luzatu zi-
dan ertzain batek. Nik euskaraz galde
ziezadan eskatu nionean kotxetik irten
eta "No, no, en erdera, ¿de donde eres
tu?" erantzun zidan. Nik, aldiz, nere
eskubidea zela euskaraz hitzegitea eta
mesedez euskaraz galde ziezaidala edo
euskaraz mintzatzen zen norbait ekar
zezala. Antza denez ez zion grazia
haundirik egin eta: "¡Haber el carné!"
baino ez zen esateko gai izan. Berriz
euskaraz egiteko eskatu eta hurrengo
erantzuna: "¡Ya estamos otra vez!"

Batbatean txoferrak kotxetik irten eta
karneta euskaraz eskatu zidanean ez
nuela karnetik erantzun nion, lanetik
nentorrela eta ez nuela lanera eramate-
ko ohiturarik. "¡Jode encima sin carne!"
besteak.

Txoferrak euskaraz zertxobait zeki-
en eta izena, NAN zenbakia eta helbi-
dea eskatu eta datuak irratitik egiaztatu
zitzen.

Irten zenean, nik nere burua identi-
fikatu nuen era berean eurok ere euron
burua identifika zezatela eta ea zerga-
tik nengoen han erretentuta galdetu
nien. Erantzuna oraingoan ere adieraz-
garria. "¡Que no hables en euskara, que
no te entendemos. Si quieres algo, ha-
bla en castellano!"

Halako batean, nere datuok ondo
zeudela konprobatu zutenean "Barkatu
eta agur" esan zidaten.

Han bukatu ziren gure berbak. Ez
noa beste baloraziorik egitera, bakar
bakarrik berriz ere eskatu han Espaloi-
ko etxe haundi hartan norbaitek karta
hau irakurtzen badu esplika diezadala
ea zergatik tratatu ninduten modu har-
tan eta ea zeintzuk ziren polizi haiek.
Besterik gabe, agur.

JABI BENGEOA**Baserritarrok ere
bergararrak gara**

Bagenekien baserritarren arazo la-
rriek ez ziotela Udaletxe honi burukomin
handirik sortzen. Baina azken aldi hon-
etan Alkatea eta bere taldekideen ja-
rrierak, garai bateko "jauntxoek" herri
xehenarekin zeukatena ekartzen digu
gogora. Eta gehiegi da!

Azoka berria hainbeste denpora gel-
dirik izan, saltzaileekin akordiotara iris-
teko hainbeste gorabehera, azokak be-
har zituen konponketa minimoen onar-
pena lortzeko hainbeste buelta eta erre-

gu egin behar, azokan txukunduta jar-
tzeko aitzakiaz, abuztuan baserritarrei
puestoak kendu eta jeneroak lurrean
izatera behartu, ez puestoen txukunketa
ez agindutako ranpa edo sarrera egin,
eta berrian ezin zenez, gutxienez azoka
zaharrean saltzen utzi beharrean, hura
itxi, kanpoan saltzera behartu eta gai-
nera bakoitzari 75.000 pezetatoko mul-
taren notifikazioa egin. Utzikeria eta bu-
rugogorkeria, alkateak berak esan bait
zuen "ranpa" hori bi egunetan egin zite-
keela!

Eta hori gutxi balitz, San Martinetako
Feria berezia egitea lortzeko egin behar
izan direnak. Herri guztietan horrelako
Feria indartzen eta Bergaran kentzen
... Zenbat kexa, eskaera eta erregu,
"Promoción Cultural-i" esker egina eta
eskertu gabea, baserritar eta kaleta-
rrentzat hain interesgarria den Feria
mantendu ahal izateko... Horrela ez da
herri bat eraikitzen. Baserritarrok ere
edozein herritarri zor zaion errespetoa
eskaten dugu. Dena den, eskerrik be-
roenak Bergarako herritarrei, bai beren
eguneroko laguntzagatik bai San Marti-
netako ferian erakutsitako interesagatik.
Espero dezagun, azkenengo orduan eta
nahiko lanekin antolatuta arren halako
arrakasta izan zuen feriak, zer pentsa-
turik emango diola Udaletxe honi herri-
tarren nahiari buruz, guretzat produzi-
tzea bezain garrantzitsua baita saltzea.

**ENHE BASERRITARREN
SINDIKATOA****Tiira biraka****J.M. EZENARRO**

Udal Gobernu Batzordeak dioenez, "HBk ez du proposamenik egin baserritarren arazoei buruz"

Asteazkenean Kultur Etxean eskainitako prentsaurrekoan, Victoriano Gallastegi alkateak eta Koldo Pereira alkateordeak, pasaden astean Herri Batasunak prentsaurrekoan esandakoei erantzun zieten.

Udal Gobernu Batzordeak legealdi honetan egin duena HBk esaten duenaren kontrakoa dela esan zuen Victoriano Gallastegik, *"behin eta berriz, Merkatuaren inguruko benetako informazioa distorsionatzen ari baita HB"*. Merkatu berriaren obra guztiari buruzko datu ekonomikoak biltzen dituen txostena Udaletxeko idazkaritzan dagoela eta edozein herritarren eskura dagoela esan zuen alkateak: *"Udal Gobernu honek ez dio HBri inoiz leporatu merkatuaren obrak izan duen diru defasea, gobernu honek datu ekonomiko guztiak biltzen dituen txosten zehatz bat egin du"*.

Oxirondoko merkaturako proiektuari EAJk bere garaian ezetza eman ziola gogoratu zuen Victoriano Gallastegik, *"bala ere, gobernu honek aurrera eraman du egitasmoa, aurreko legealdian Plenoan onartu zelako eta obraren ejekuzioa adjudikatu egin zelako"*. Alkatearen hitzetan HBk joan zen astean esandakoak *"HBk proiektua ezagutzen ez duela agerian*

utzi du" eta bere momentuan Elkorok Pleno batean merkaturako garajeak non zeuden galdetu zuela ekarri zuen gogora, *"HBk onartutako proiektuan garajeak agertzen ez diren bitartean"*. Gallastegik, bestalde, proiektua egin zenean HBk baserritarren eskaerak kontutan hartu zituen ala ez galdetu zuen.

Baserritarren eta anbulanteen arazoa

Egunero egunero euren salmentak merkaturan egiten dituzten 3 baserritarrei, astelehenetik ostiralera bitartean utzik dauden postu fijoetako batean saltzeko aukera eskaini ziela esan zuen alkateak: *"bebeko solairuan bakarrik egon beharrean eta ezer ordaindu barik postua utziko geniela adierazi genien baserritarrei eta hauek gure eskaintza onartu egin zuten. Baina ez dira etorri"*. Anbulanteekin bileratan egon zirela ere esan zuen: *"Orain dela bost hilebete inguru anbulanteekin batera merkaturak bisitatzeko izan ginen eta hauek ranpa eraikitzeke eskaria egin ziguten. Guk baietza eman genien, baina arrazoi batzuegatik irailaren 1era arte, lanak ez dira hasi. Arrazoiak bi dira: alde batetik, postu fijoetarako lehen deialdia egin genuenean, ez zen inor aurkeztu eta bigarrenetan merkaturak zabaltzeko*



Victoriano Gallastegi eta Koldo Pereira asteazkenean emandako prentsaurrekoan.

nabikoa eskaera jaso zirenean, orduantxe erabaki zen ranpa egiten hastea. Hori uztailean izan zen eta oporrak zirela eta, irailaren 1era arte ezin izan dugu ranpa egiten hasi".

Abuztuaren 31n HBko zinegotziekin bildu zela esan zuen alkateak. HBkoek baserritarren egoerari buruz galdetu ziotela esan zuen eta, *"egoeraren berri eman nien, baina ez zidaten proposamenik egin baserritarren kokapenari buruz"*.

Anbulante eta baserritarrei kalean saltzeagatik ireki zaien espedienteari buruz, alkatearen funtzioa legea bete araztea dela esan zuen: *"ez dugu inolako mehatxurik egin, baizik eta gure betebeharrei erantzuna eman"*.

Merkaturak eraiki den bitartean, Hirigintza Batzordeetara joaten den

HBko zinegotziak egin diren lan guztien berri izan duela esan zuen alkateak: *"eta gai bonen inguruan hartu diren erabaki guztietan oneritzia eman du"*.

Barazkien feria

San Martinetan antolatutako ferien inguruan sortu diren gorabeheri buruz ere jardun zuen alkateak eta hasiera batean, Erramu Zapatu egunera pasatzea pentsatu zela esan zuen: *"Asmoa Erramu Zapatuko feria indartzea zen, baina Mendi Nekazaritza Elkartetik barazki eta fruktak saltzeko sasoirik egokiena oraingoa zela esan ziguten eta eurekin batera, feria San Martinetan antolatzea erabaki zuen Udalak"*. Aurrerantzean San Martinetan antolatutako dela esan zuen.

◆ Yoga eta eskulanak

Udaleko Gizarte Ongizate Sailak emakumeei zuzendutako yoga eta eskulan ikastaroak antolatatu ditu. Interesatuak Irizar Jauregian eman dezakete izena irailaren 28a baino lehen.

◆ Helduen heziketa

Bergarako Helduen Heziketarako Eskolak irakurtzen eta idazten ikastea, kultura orokorra zabaltzea edota Eskola-Graduatua lortu ahal izateko eskaintza egiten du. Matrikula epea irailaren 30era arte egongo da zabalik. Argibide gehiago Irizar Jauregian edota 76 44 52 telefonoan.

◆ Santa Clara

Monjazarrek Santa Clararen jaiotzaren VIII. mendeurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatatu dituzte. Gaur ostirala, 19.30etan, Arizeta abesbatzak lagundutako Eukaristia izango da eta 22.00etan Gaubela Eukaristikoa. Bihar larunbata, 19.30etan Eukaristia Jubilatuetako abesbatzaren laguntzaz eta 20.30etan Santa Klarari buruzko hitzaldia. Igandean, 19.30etan Eukaristia Donostiako Ereski Eskola Gregorianistaren partaidetzarekin eta 20.30etan, Ereski Eskolaren kontzertua. Ekitaldi guztiak monastegiko elizan izango dira eta monja klaratarrek bergarar guztiak gonbidatu nahi dituzte. Era berean, ohitura denez, irailak 26an hasiko da Asiseko San Frantziskoren bederatzaurrena: 7etan errosario eta bederatzaurrena egongo dira eta 7.30etan eukaristia.



Udazkenak haize hotzak ekarri badizkigu ere, Angiozarren giro beroa izango da.

Gaur emango zaie hasiera Angiozarren San Migel jaiari

EGAN taldeak gaurko dantzaldia alaituko du

Gaur ostirala hasiko dira Angiozarreko San Migel jaiak. Arratsaldeko 8etan kanpai jote eta etxaleroekin hasiera emango zaie, orduerdi beranduago kalejirak izango dira, 10etan briska txapelketa Pagomendi elkartearen, 11.30etan EGAN taldearekin dantzaldia eta goizaldera goiztarrentzat txokolatea.

Larunbatean, 5etan aizkolari eta harrijasotzaileen erakusketa, 7etan "Autopullman Araba" mus txapelketa jokatu da, 9etan pasakaleak, 11.30etan dantzaldia LAIOTZ taldearekin eta goizaldera txokolate beroa banatu da.

Igandean, goizeko 11etan Meza Nagusia San Migel elizan, 12etan luntxa emango da, orduerdi be-

randuago Bergarako Bandak kontzertua eskainiko du eta arratsaldean, 3.30etan, plater tiraketa.

Azkenik, ostegunean, irailak 29, San Migel eguna ospatuko da. Goizeko 11etan Meza Nagusia iragarri da, meza ostean Jubilatuen abesbatzak emanaldi bat eskeiniko du, eguerdian tabernariak herritarrei gonbidapena egingo diete eta ordu berean, pasakaleak izango dira "Gezalaga" taldearekin eta arratsaldeko 5 terdietan haurrentzako jolasak eta askaria. Ondoren dantzaldia egongo da eta gaueko 9etan San Migelen zeruratzea plazatik egingo da. Jaiari bukaera emateko "Gezalaga" bikoteak dantzaldia alaituko du. Beraz, San Martini, San Migelek hartuko dio lekukoa...

**A
R
R
A
N
O**



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia.
Bioter produktoak eta haziak.**

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

Luis Bikuña hil da 80 urte zituela hil zen joan zen asteazkenean

Luis Bikuña Pol-Pol Mendizale Taldeko sortzaileetarikoa bat aurreko asteazkenean hil zen 80 urte zituela. Mendizale amorratua izan zen Luis Bikuña eta 1942.eko martxoan, Luis bera, Pedro Marco Gantxegi, Anjel Jauregi, Ignacio Muruamendiaraz eta Alberto Osinaga bergararrak eta Manolo Zubia eibartarrak egindako lanaren ondorioz sortu zen Pol-Pol elkarte. Ordutik elkarrekin aurrera egin zuen eta gaur egun bergarar belaunaldi askok Pol-Poli esker eman dituzte beren lehen pausak mendian. Goian bego Luis Bikuña.



Luis Bikuña, 1992ko martxoan, Pol-Polen 50. urteurrenean ateratako argazkian.



Gose Greban. Igandetik gaur arte 6 bergarar gaztek presoan aldeko baraualdia egin dute UNEDn. Euskal Herriko beste herri askotan bezala eta euskal presoek eginiko deialdiari jarraituz, gazte hauek bat egin nahi izan dute presoan eskakizunekin, "beraien eskubideak errespetatu daitezela eta legea bete dadila" alegia. Atzo eta herenegun tertulioak eta bideo emanaldiak izan dira UNEDn, enkarteladak Plazan eta, gaur 8etan, Gestorak antolatutako ekitaldi bat izango da Plazan.

◆ Prestakuntza plana ikastaroak

Miguel Altuna Institutuak, Diputazioaren laguntzaz, urritik aurrera langilegoari zuzendutako ikastaroak (informatika, elektragintza, mekanika edota kalitateari buruzkoak) iragarri ditu. Argibide gehiago Miguel Altuna Institutuan edota 76 24 91 telefono zenbakian.

◆ Txapa Irratiaren X. urteurrena

Txapa Irratiak, bere lehen 10 urteak ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu ditu astean zehar. Gaur ostirala, 12etan, 24 orduko irradi emisioari hasiera eman zaio eta gauean, berriz, 10etan zinea iragarri da Zabalotegiko aretoan. Bihar larunbata 12etan bizikleta martxa egingo da herriko kaleetatik zehar eta 14.30etan herri bazkaria (ziurrenik Artatse elkartean egingo da).

◆ AEKko Akui euskaltegia

Bergarako AEKko Akui euskaltegiak 2, 3 eta 5 orduko euskalduntze, alfabetatze eta EGA ikastaroak antolatu ditu. Argibide gehiago Masterreka 13an edota 76 05 18 telefonoan.

◆ EAJren oharra

Bergarako EAJk urriaren 23ko hauteskundeetan botoa korreoz eman ahal izateko bulego bat jarri du martxan, izan dezakezuen duda, argibide edo eginbeharrak argitzeko. Bulegoa, eguerdiko 12etatik ordubatera eta 7etatik 9etara egongo da zabalik.

ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak.
Fatxadak, eskaparateak...

Amilaga (Gasolindegia ondoan). Tfnoa: 76 57 34

ONENA

TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA

Txakur finak

Ikusmin haundia piztu zuen igande goizeko Hezitutako Txakurren Erakustaldiak. Jende ugari bildu zen Seminarioan txakurren abileziak jarraitzeko; Bordeletik ekarritako 11 txakurri zirkuitu bat gertatu zitzaizen eta beren jabeen laguntzaz



ondo baino hobeto bete zuten, traba guztiak gaindituz. Jarraian, Zarautzeko Urdaneta Haztegikoek 5 txakurrekin defentsa/erasoko probak egin zituzten eta txakurrek argi utzi zuten agintzen zaiena egiteko kapaz direla. Beraz, txakurrak daukazuenok badakizue, datorren urteko ediziorako zuen txakurrak gertatu behar...

Musika nagusi

Ostegun gauean *Hermandas Ross* taldeak alaitutako dantzaldiak eta San Martin eguneko *Ipar Rap Eroak* eta *Def Con Dos* taldeek eskainitako rock kontzertuak jende ugari erakarri zuten San Martin plaza ingurura. Osteguneko dantzaldian, gaztaroa aspaldi utzia dutenak, batez ere, aritu ziren eskeletoari eragiten ematen. Hurrengo egunean, osterara, gazte jendeak hartu zuen plaza. Bertakoek, zein inguruko herrietatik etorritako gazteek, Rap eta Hip Hop erritmoekin gozatzeko aukera izan zuten. Def Con Dos taldeak, batez ere, aho zabalik utzi zituen plazara inguratutako asko. Esan behar da, bestalde, **Gazte Asanbladak** bi pankarta jarri zituela Udaletxean kontzertua hasi aurretik (fatxada nagusian bat eta obretako gruatik zintzilikatuta bestea). Pankartetan Gaztetxearen aldeko esloganak irakur zitezkeen.

Bertsotan....

500 bat pertsona bildu ziren larunbatean **JARDUNEK** Mariaren Lagundian antolatutako bertso jaialdian. Joserra Gartzia gai-jartzaile aritu zelarik, Andoni Egaña, Angel Mari Peñagarikano, Unai Iturriaga, Iokin Sorozabal, Xabier Euzkitze eta Ainhoa Agirreazaldegi bergararrak saio bikaina eskeini zuten. Ohitura denez, ohizko bertsolarien arteko txantxak eta ikusleen barrak ez ziren falta izan. Hauek ez daukate erremediorik...



**F.J. ARISTONDO
GOROSABEL**

LARRUAZALAREN
GAIXOTASUNAK ETA
GAITZ BENEREOAK

Registroa: 154-94

Barrenkale, 16 1 ☎ 76 18 81

Barrenkale, 23 ☎ 76 29 65

ederTU
ALTZARIAK



Danborradak, San Martinetako ekitaldirik garrantzitsuenetarikoak, ikusmin handia sortarazi du aurten ere. Argazkia, Seminarioan ateratakoa da, amaiera ekitaldian.

Muruamendiaraz eta Agirre irabazle

Edu Muruamendiaraz eta Amaia Agirrek irabazi zuten joan zen ostiralean jokaturako Moises Azpiazu Oroimenaldia dantza suelto txapelketa. Bigarren Parrondo anaiak sailkatu ziren, hirugarren Aitzol Ena eta Josune Sarriegi eta laugarren Asier Ena eta Laura Carpintero. Edu Muruamendiaraz eta Amaia Agirrek lehenengo bergararrei Moises Azpiazuren familiak ematen dien saria ere jaso zuten.

Euri arteko barazkiak

Hasiera batean Seminarioko patioan egingo zela iragarri zen arren, euria zela eta, **Simon Arrietan** egin zen joan zen larunbatean barazki, lora, fruta eta gazten lehiaketa. Aurten aurreko edizioetan baino saltzaile gutxiagok hartu zuen parte lehiaketan. Hala ere, jende ugari inguratu zen produktuak ikusi eta erostera. Sariei dagokienez, fruten atalean, bi saltzailek hartu zuten parte. Jose Luis Madina aramaiotarrak eraman zuen lehen saria eta Ascensio Irizar antzuolarrak bigarrena. Barazkien sailean, lau saltzaile aurkeztu ziren eta lehen hirurak honako hauek izan ziren: Antzuolako Lapatza baserriko Tomas Larrañagak eraman zuen lehen saria, Jose Lonbide aretxabaltarrak bigarrena eta Pello Rubio elgoibartarrak hirugarrena. Latxa arrazako ardi esnez egindako gazte dagokienez, Jose Zufiria eskoria-

tzarra izan zen onena, Vicente Urzelai oñatiarra bigarrena eta Begoña Aranbarri bergararrak hirugarrena. Etxeko loren artean, M. Prat

eta Adoración Lañas arrasatearrek eraman zuten lehen saria, Fidela Larrañaga bergararrak bigarrena eta Irene Zenitagoiak hirugarrena.



LXUKUN
BEREZITASUNAK
 Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62
BERGARA

MAKAILO
 Makailau **ETXEA**
 kazuelak
 gertatzen ditugu
 Ibargarai 15

Pepelu
Ileapaindegia
 Zurradero, 2 behe.
 ☎ 76 43 07

Legedia

Alkholemia kontrolak

- Zer egin dezakegu alkholemia-kontrol baten aurrean?

- Alkholemia kontrola egitea borondatezkoa da, legeak ez du nahitaz putz egitera zein odol analisia egitera derrigor-tzen. Ezezkoa esanez gero, isuna jasan (50.000 pta.) eta kitto. Inor ezin da indarrez analisi hauek egitera behartu; oster, ez da indarrez behartetzat hartzen norberak borondatez onartzen duenean.

- Praktikan, oster, ez da hori gertatzen...

- Nahiz eta alkohol testik ez egin, ertzainek, udaltzainek edo dena delakoek alkohol aztarnarik edo gidatzeko moduan arriskurik ikusten badute salaketa egingo dute, eta juizioan epailearen aurrean berretsiz gero nahikotzat joko da alkoholaren eraginaren menpe gidatzen zela egiaztatzeko.

- Fidagarriak dira alkohol kopurua neuruzko erabiltzen diren tresnak?

- Tresna horiek lege baimendutakoak izan behar dute. Ertzaintzak gaur egun Dräger 7010 izeneko tresnak erabili ohi ditu, Espainiako Toxikologiako Institutuak homologatutakoak. 1985eko Dekretu batek, ordea, Meteorologiako Institutuak homologatuak izan behar dutela agintzen du. Hau da, Ertzaintzak putz egi-

teko ahoan ipini ohi dizkigun tramankuluak ez dutela baimen ofizialik. Praktikan ordea, epaileak honi kasurik egin gabe, ertzainek alkoholaren eraginak jota gidatzen zela salatu eta berresten badute epaitegian, nahikoa izango da, aurkako frogarik ezean, legeak zigortutako egintza betetzat hartzeko.

- Eta odol analisia egiteko aukerarik badago?

- Alkohol testak positibo ematen badu (alegia,



ELENA LAKA

(abokatua)

odolean 1.00 zentimetro kubikoko 0,8 gramo alkohol baino gehiago) gidariak bigarren proba bat egiteko eskubidea du, bai eta odol analisia egiteko ere. Beraz, odol analisia borondatezkoa da, ez derrigorrezkoa.

- Positibo ematekotan, juiziora?

- Bigarren proba honetan 0,8 zorioneko hori gaindituz gero, Ertzain-

tzaren txostena epaitegi-
ra bidaliko da, eta urte
terdi inguru ondoren,
juizioa. Praktikan epaite-
gietan nekez ikusten da
1,1 edo 1,2tik beherako
kasurik.

- Eta zeintzuk izango dira bi aldetako frogak?

- Juizioan gidaria alkoholaren eraginaren menpe zihoala frogatu behar da. Nola? Alkohol testa ezin denez epailearen aurrean berriro egin, garrantzitsuena ertzainek salaketa berresteko egiten dituzten adierazpenak izan ohi dira: gidariaren jokaera nolakoa zen, alkohol usainik botatzen zuen, gidatzeko modua... Puntu guzti hauek izango ditu epaileak kontutan. Hutsaren pareko balioa, aldiz, gidariaren kotxelagun adierazpenek: epaileak ondotxo daki gidariaren antzeko egoeran zihoazela edo, bestela, adiskide dutela eta hortaz bere alde aterako direla.


- Beraz, isuna ezinbestekoa...

- Hilabetetik sei hilabatera bitarteko gartzelazigorra ala 100.000 pezetatik 1.000.000 pezetara bitarteko isuna jaso daiteke, eta beti ere gidatzeko baimena kentzea hiru hilabetetik bost urtera bitartean, guztia sortutako arriskuaren arabera, alkohol kopuruaren arabera, lehen aldia den ala ez kontutan hartuta, eta jakina, istripurik sortu den ala ez ikusita. Epaitegiek normalean erraztasunak ematen dituzte isuna epeka ordaintzeko. Alegia, beste hark kantatzen zuen bezala, *don't drive drunk!*

"Alkholemia testa egitea borondatezkoa da, legeak ez du putz egitera derrigor-tzen"



Alkohol testak positibo ematen badu, gidariak bigarren proba bat egiteko eskubidea du.



Mikel Laskurain aktoreak Julio Medemekin (argazkian) lan egiteko aukera izan du.

Zinea barrutik

Zinean lanean ari diren bergararren esperientziak

Donostiako Nazioarteko Zinemaldiari esker, azken astean gure etxeetan hainbat aktore famatu ikusteko aukera izan dugu, zinearen aurpegi disdiratsua erakutsiz. Halere zineak baditu beste aurpegi batzuk eta gure herrian bertan ikus daitezkeenak. Batzuk aktore lanak, besteak argiztapen kontuak, produkzioa, extra lanak, ia danetik egiten duen jendea aurkitu ahal izan dugu.

Donostiako zinemaldia dela eta, gure artera etorri dira, Mickey Rooney, Jack Nicholsonen azken pelikula...

Baina, gure herritik kilometro gutxitara, Sestaoan, jo ta ke ari dira lanean *Salto al Vacio*, pelikula errodutzen Elsa Manso, Asier Altuna eta Oihana Gardoki bergararrak. Euren kontaktoa egin ondoren, Sestaora heldu gi-

nen. Han aurkitu genituen hiru bergararrak bakoitza bere lana betetzen, argi, kamara eta zineak dituen gauza guztien artean. Errodaiak utzi zigun momentu libre murriztuan eurekin berba egiteko aukera izan genuen.

Elsa Manso hiruren artean beteranoena da zinemagintzan, pelikula-
ren Produkzio arduraduna da. *Salto al Vacio* egin baino lehen Juanma Bajo

Ulloarekin *La Madre Muerta* filmean lana egin du. "Ni lanean duela 5 urte hasi nintzen *Fina Salegirekin* eta lehen luzemetraia Ulloarekin *La Madre Muerta* egin nuen. Ondoren *Trincadorekin Salvate si Puedes* pelikulan ere izan naiz eta *Salto al Vacio* hirugarren pelikula da" diosku Mansok. Bere lana, produzio arduraduna denez, errodaia koordinatzea da. Halaber, ekipoa konpletua izatea, departamendu bakoitzak errodaia hasterako orduan bere gauza guztiak edukitzea, aurrekontutik ez pasatzea,

kontratoak egitea, baime-nak lortzea, lokalizazioak egitea, etab.

Mansok publizitate munduan ere egin du lan, baina berak aitortu digunez, nahiago du zinea. "Publizitatean Madriletik edo Bartzelonatik etortzen dira eta lan egiteko era askoz errazagoa da. Bi egunetan egiten da errodaia eta gero bakoitza bere aldetik joaten da. Zinean lan talde bat osatzen da eta 3 hilabeteetan zehar batera bizi bebar dugu. Harreman gebiago dago".

Egin dituen hiru pelikuletatik, (oraindik hirugarrena ez du bukatu) *La Madre Muerta* izan da gehien gustatu zaiona, halere Julio Medem zuzendari donostiarrarekin gustatuko litzaioke lan egitea. "Medemekin Antonio Vegaren azken video clipa egin dut eta gustora egin dugu lan. Ulloarekin *Barricadaren* eta *Los Enemigos*en Video Clipa ere egin ditut" adierazi digu Mansok, lan taldeari aginduak ematen ari den bitartean.

"Gauzak azkar egin behar dira"

Asier Altunaren lana pelikulan argiztapenaz arduratzea da eta filmearen errodaia nola doan galdetu diogu. "Orain arte gauzak ondo doaz, baina pelikula presuponeto bajukoa da eta horrek atzetik dakarren gutzia. Diru gutxi kobratu, lanean ordu asko sartu... Aitzitik jende gaztea

"Pelikula bat egiteko, ez dira aktoreak bakarrik behar, atzetik lan talde handia dago"

*gabiltza pelikula egiten eta giroa oso ona da. Bai zuzendari eta bai akto-reekin ondo konpontzen gara". Altunak beste bi pelikulatan lan egin du, *Despues de Tantos Años* eta *Justino Asesino De La Tercera Edad*en.*

Bere ikasketak Andoaingo eskolan egin ditu eta urtebetez Venezuelan bizi izan da ikasten. *"Venezuelan lan egiten ikasi nuen, argiztapenaz gain, makinista lanak ere egin ditut. Zinea oso lan gogorra da, denborak asko balio du. Dena azkar egin behar baita. Salto al Vacio pelikulan izan ezik nabiko ondo kobratzen da. Gainera azken aldian presupueto bajuko pelikula asko egiten ari dira eta teknikoak gara diru gutxiñ kobratzen dugunak".* Altuna telebista eta video clip munduan ere ibili da, Mikel Erentxun donostiarraren azken bideoan lanean ibili izan delarik.

Oihana Gardoki hiruren artean esperientzia gutxiñ duena da eta pelikulan produkzio laguntzaile lanetan ari da. *"Produkzio laguntzaile bezala danetik egin behar dut. Argotean nire lanari 'meritorio' deitzen zaio. Jendea deitu behar diot, kafea prestatu, bazkari-rako tokia erreserbatu..."* dio Gardokik. Bere bigarren pelikulan, asmorik handiena lanbidea ikastea da.

"Antzerkia oso gaizki dago"


Mikel Laskurain gure artean nahiko ezaguna dugu, batez ere telebistan agertu delako *Hor Dago Koxka* lehiaketan. Laskurainek antzerkigintzan lehen pausuak instituan eman zituen Xaputz antzerki taldeko partaide bezala, hortik Donostiako aktore eskolara joan zen ikastera eta ikasketak amaitu ondoren, beste aktore batzuekin batera *Hika* antzerki taldea sortu zuten. Hikarekin 6 muntai ezberdin egin ditu.

Antzerkiaren gain, zinea ezagutzeko aukera izan du eta 1990.enean *Santa Kruz apaiza* pelikulan parte hartu ondoren, Julio Medem zuzendari donostiarrarekin *Vacas* eta

La Ardilla Roja lan egin du.

Hor Dago Koxka lehiaketa bukatu ondoren, Laskurain datorren astelehenean bertan ETBn hasiko den Goenkale telenobelan ikusteko aukera izango dugu. Berak dioenez, *"Goenkale ia kapitulu guztietan irten-go naiz. Nire izena Felix izango da eta tabakoaren kontrabandoan sartuta dagoen pertsonaia izango naiz, portuko trapitxeroa"*.

Aktore bergararrak telebista eta zinea barrutik ezagutzeko aukera izan du eta bat aukeratzekoan, bigarrenarekin gelditzen da. *"Zineak beste erritmo bat du, gauzak errealagoak dira. Zinean etxea zaharra bada, ba etxea zaharra, mendian*



Asier Altuna argiztapenaz arduratzen da *Salto al vacío*an.

bada, ba mendian da. Telebistan beti egon behar zara kamarari begira eta zinean berak jarraitzen dizu. Telebista platoan egiten da, zinea, aldiz, kanpoan".

Halere, azkenaldian alde batera utzita duen arren, bere lehen pausu-



Mikel Laskurain, Nancho Novorekin, *La ardilla roja* pelikulako protagonistetako batekin.

GURIDI Altzariak

**Era guztietako
altzariak**

Artekale 8, Tfnoa: 76 31 02

ITXASMENDI

Taberna

Barrenkale 36
Tfnoa: 76 50 64
BERGARA

IGARZA

**MERZERIA
LENZERIA**

Irala, 5 Tfnoa: 76 24 88 BERGARA

ak antzerki munduan eman ditu. "Azkenengo boladan kale antzerkia egin genuen gebienbat. Baina antzerkia oso gaizki dago, ez dago lanik. Oso aktuazio gutxi dago, orain zai gaude Diputazioak antolatuta behar duen zirkuitoan sartzeko". Laskurainek zinean, orain modan dagoen eta Donostiako Zinemaldian epaile den Julio Medem, zuzendari donostiarrekin lan egiteko aukera izan du. "Juliorekin oso pozik egin dut lan. Berak argi dauka zer nahi duen eta badaki hori aktoreei nola atera. Halere argi dago euskal zineak Bajo Ulloa eta Medemekin izan duen arrakasta espontanea dela, ez dago esaterik euskal zine propio bat dagoenik, ez baitago eskolarik".

Gaur egun Laskurainek lan faltarik ez du eta

hori egoera dagoen bezala kontutan izanda, ez da gutxi. "Oraingoz beti lanean aritu naiz, baina edozein gauzatan. Etor-kizunerako ez dut plan handirik, lan egitea da garrantzitsua da".

Behin behineko aktoreak

Carlos Marzana Angiozartarra harakina da eta bere aitarekin batera idi probatan ibiltzen da. Orain 27 urte ditu, baina 20 urterekin zine munduan bere debuta egin zuen *Fuego Eterno* pelikulan. "Fuego Eternon Imanol Arias eta Angela Molin角度gen zuten lan. Nire pertsonaia Elorrioko San Agustin merkatuko saltzaile bat zen, momentu batean Imanol Ariasekin bitz egin behar nuen. Arias oso tipo jatorra da. Halere errodaia oso go-

gorra da, kontutan izan behar da pelikulako bigarrendo egiteko lau ordu behar direla". Marzanak Lauaxeta filmean ere parte hartu zuen. Bertan 20 egun inguru eman zituen argi eta kamara artean. Bere lana idiak erabiltzeaz gain, pelikularako be-

har ziren animaliak lortzea izaten zen. "Lauaxetan Xabier Elorriagarekin izan nintzen eta hau ere oso jatorra da. Pelikulez gain telebistarako anuntzio baten ere parte hartu dut, Leche Larsa galiziarrarentzat egin nuen iragarkia".



Elsa Manso, Salto al vacío pelikulako produkzio arduraduna.

ZAILDU EZAIGUZU



"DISEINU ESKLUSIBO ETA KALITATE BIKAINENKO BETAURREKOEN BILA NABIL"
MULTIOPTICASen Sara eta Berto eustura esklusiboak

"GARANTIA OSOA ESKATZEN DUT"
MULTIOPTICASen garantia txartelak EUROPAko 3000 optiketan balio ditu.



"ETA PREZIO ONA, JAKINA"
2.850 pta. bakarrik.

J. LARRAÑAGA OPTIKAN ERRAZTUKO DIZUGU

2.850 pta.



Ibargaray, 16 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - ARRASATE
J. M. Baradianar Enparantza, s/n - ORDIZIA

Non nahiago duzu pelikulak ikustea, telebistan ala zinean?



Raquel Martin
13 urte, ikaslea

Zinean, nahiz eta gutxitan joaten naizen. Batez ere beldurrezkoak gustatzen zaizkit. Etxean ere pelikula asko ikusten ditut.



Asier Agirrebeña
21 urte, ikaslea

Segun ze pelikula den... baina zinera gustora joaten naiz, ia astero. Danetariko pelikulak ikusten ditut bai zinean eta bai telebistan.



Carmen Sánchez
68 urte, etxeoandra

Telebistan, zinera aspaldi ez naiz joaten eta. Nola telebistan ikusten ditugun senarra eta biok... Batez ere komedia espainolak atsegin ditut.



Yoshiyasu Zenitani
50 urte, margolaria

Neretako zinea egokiagoa da, gainera hemen telebista oso txarra da eta. Gehien filme zahar erromantikoak gustatzen zaizkit.



Josepi Gillegi
55 urte, etxeoandra

Zinean nahiago baina gutxi joaten naiz. Batez ere bakeroenak eta pelikula erromantikoak ikusten ditut.



Jesus Pérez
53 urte, langilea

Gutxienez 8 urte dira zinera ez naizela joaten... Telebistan bai, ahal dudanean bakeroenak eta barregarriak.

INGELESA-FRANTZESA

- Maila guztiak
- Azterketen prestakuntza
- Ikastaro trinkoak
- Umeak, gazteak eta helduak
- **KURTSO HASIERA: Urriak 3**



INFORMAZIOA:
Bergarako UNED.
(3. pisua) ☎ 76 06 87

MATRIKULA ZABALIK



ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Kameterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi, 2 ☎ 76 00 50



FMI, BM, GATT

1944, uztaila, Bretton Woods, EEBB.

Bigarren Gerra Mundiala bukatzen. Alistauak irabazi eingo dabelakuan pozik dare. Bilera bat dago leku ezkutu batian. Finantza ministrak, bankerak eta ekonomilari talde bat elkartu da.

Bi puntu nagusi eztabaidarako:

1.- Oinarteko gerra "kontuak" argitzia, hau da, gerriak sortu daben negozioko dirua ondo eta zuzen banatzia.

2.- Hemendik aurrera munduko orden ekonomiko berrixa nundik nora jungo dan erabakitzia.

Bilera luzia da.

Azkenian zeoze erabaki dabe:

FMI: Honek, txanpon ezberdinen arteko erlaziñua mantenduko dau. Merkantzia gehiago mugitu eta komertzioa mundu osora zabaldu.

BM: Aldez aurretik erabakitako proiektu erraldoien finantziaziñua erraztu, beste baten artian, garraioa, hidraulikoak eta energiaren inguruan, daenak.

GATT: Honek, munduko komertzioa gobernauko daben erregelak erabakiko dittu.

Bilera bukatu da. Hemendik aurrera... 50 urte aberatsak aberasten eta pobriak pobretzen.

Joxe LAZKANO



Etxeko igogailua

Oraindik gogoan daukat etxeko igogailua hil zeneko eguna. Zahartzaroan murgilduta, erabilerak eta sutea gertatzen denerako segurtasun arauak akatu zuten egurrezko makina eder hura. Beranduago, eskailerako zuloan lagatako lekua metalezko moderno batek bete zuen, itsusi horietako batek (nere arimako lekuak ordea, hutsik dirau).

Badakit teknologiak aurrerapena dakarrela: praktikotasuna, segurtasuna, bizkortasuna eta zuek nahi adinako tasunak. Baina berak sortzen dituen paradoxek ikaratzen naute ni: botoi bati sakatuz, munduan eguneko zenbat umek jasaten dituzten tratu txarrak jakin dezakegu; telebistak Yugoslaviako tiroketen momentuzko imajinak eskeintzen dizkigu; sateliteak estatu espainoleko lurraldea basamortu bihurtzen hasia dela erakutsi, eta, oster, ezin konpondu. A ze inpotentzia! Aurrerapausu batek, 2 atzeraka bizkarrean.

Lagun batek dio, azken finean, dena elkarren artean honen lotua dagoen honetan okerra, baliabideen banatze desegokian datzala. Badaiteke; gure gaitz gehienen iturburua delako. Dena da honen seme (dena, etxeko tramankulua ezik; primeran dabil).

Ainhoa ALTUNA



POL-POL

TABERNA

☎ 76 07 78

DEPORTIVO

TABERNA

☎ 76 01 51




Goian, 1981an bazkide talde bati ateratako argazkia. Zutik, ezkerretik eskumara: Jose A. Muñoz, Juan R. Arriaran, Ignacio Andueza, Bernardino Agirre, Angel Alberdi, Iñaki Arregi eta Narciso Begiristain. Makurtuta: Angel Madariaga, Ignacio Ezpeleta, Javier Alvarez, Fernando Agirre eta Jesus Urbina (argazkia Iñaki Arregi).

Bizi Naikoen eguna

Aurten bere **XXV. urteurrena** betetzen duen **Bizi Nai** elkarteak bazkideak eta mendizaleak omentzeko eguna ospatuko du igandean. Goizeko 11etan salda eta pintxoak banatuko dira, ordu berean erromeria eta argazki erakusketa iragarri dira, 11.45etan txalaparta saioa, 12etan bedeinkapena eta jarraian bazkide jubilatuei omniaaldia eta, ordubetan, bazkaria izango da. Bazkideek 76 64 27 (Narciso Begiristain) eta gonbidatuek 76 33 77 (Iñaki Arregi) telefonoetara deitu dezakete.

Bisitariak

Bergaran turismoa bultzatu asmoz, modu batean edo bestean turismoarekin zerkusia dutenei zuzendutako bisita gidatu bat antolatu zuen Udalak ostegunean. Eguerdi partean harrera egin zien alkateak Kultur Etxean bildutako 30 bat laguni, besteak beste, Julia Gómez Prieto, Eusko Jaurlaritzako Turismo Zuzendariari, Zestoako eta Karrantzako alkateei eta Euskal Autonomi Elkarteko hainbat turismo bulego, hotel eta turismo enpresetako ordezkari. Bergarako oroigarri gisa, oparitxo batzuk (Begarako errelenoak...) banatu zizkien alkateak eta ondoren herriko parte zaharretik zehar bisita gidatu bat egin zuten.



Begarako parte zaharreko eraikuntza bikainak ikusteko aukera izan zuten ostegunean Euskal Autonomi Elkarteko hainbat tokitatik etorritako bisitariak.



KORTA-ZAR

Txokolategia
Pintxo eta ogibartekoen
espezialitatea

OSTIRALETAN GOIZEKO
9ETATIK ZABALIK

Barrenkale 16, ☎ 76 20 62

ileapaindegia
eder gela

disdira

Masterreka 7 • Tfnoa: 76 00 55



Surra Irratizaleen 24 orduko lehiaketa

Surra Irratizaleak taldeak ohizko 24 orduko Irrati Lehiaketa (Sierra Bravo) egingo du larunbatean. Hasiara larunbatean eguerdiko 12etan egingo da eta erabili beharreko kanala 35.a (FM) izango da. Surrakoek eskerrak eman nahi dizkiete Alzasuko bazkideei ekipoak kokatzeko emandako laguntzagatik. Irratizaleak ahalik eta kontakto gehien egiten saiatuko dira 24 ordutan. Agian Guinness errekorren liburuan agertzea lortzen dute...

Antxintxika Berrigarara

Asteazkenean **JARDUN Elkarteak Udaleko Euskara Zerbitzuarekin** martxan jarritako "Antxintxika" programako talde bat bisitari izan genuen **Berrigararan**. Programa honetan orain arte B ereduan ikasi eta ikasurte honetan D ereduan izango diren 8. mailako ikasleak ari dira parte hartzen, lagunartean euskara lantzeko. **Felipe Iñarra** begiralearen laguntzaz gure aldizkariaren berri jaso ondoren *antxintxika* alde egin zuten beren programa zabalarekin jarraitzeko. Espero dugu irakurle finak izaten jarraituko dutela...



Zertan dibardute ba?



Aitor Zabaleta

31 urteko kotxe gidari bergararrak ezin izango du igandean El Fitoko (Asturias) kotxe igoeran parte hartu. Bere hitzetan, *"ezinezkoa zait ekipo guztia Kanarietan bait daukat eta hemendik lasterrera han beste bi proba izango ditudalako"*. Gogoratu Lola Pepsi Max taldeko gidaria Kanarietako txapelketan ari dela parte hartzen. Orainarte jokaturako 3 probetatik 2 irabazi ditu. Bere hitzetan, *"aurten Euskadi eta Espainiako Txapelketak albora utzi beharko ditut"*.

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguak
Artekale 6, Tfnoa: 76 13 29

AZPEITXI

Aranerreaka, 13 behea ☎ 76 55 00

Jatetxea

Ainhoa Arbelaitz

Ainhoa Arbelaitz 25 urteko osintxuarrak 4 urte daramatza Aritzeta abesbatzan eta urtarriletik bertako presidentea da. Horrez gain, Osintxuko liburutegiko arduraduna da.

- Dutxan abesten duzu?
- Ez.
- Ahotsa argi edukitzeko, zer?
- Nik ez dut ezer egiten. Erre egiten dut gainera...
- Zenbat zigarro egunean?
- 15 bat, astebukaeretan gehiago. Kaltegarriak izan arren...
- Entsausuak ala emanaldiak?
- Emanaldiak.
- Klean ala aretoetan?
- Aretoetan. Klean giro gehiago...
- "The Tenors"en diska erosi duzu?
- Ez.
- Sopranoak ala tenoreak?
- Sopranoak.
- Caballé ala Ainhoa Arteta?
- Montserrat Caballé.
- Zarzuelak kantatzeko ala jateko?
- Jateko.
- Konpositore bat.
- Guridi.



"Ez dut dutxan abesten eta ahotsa zaintzeko ez dut ezer berezirik egiten. Entsausuak baino, nahiago ditut emanaldiak. Ez dut Donostiako Zine Jaialdia jarraitzen eta urtero 5-6 bat liburu irakurtzen ditut"

- Ikusitako azken rock kontzertua?
- Pink Floyd Donostian eta Lin Ton Taun Osintxun.
- Donostiako Zine Jaialdia jarraitzen duzu?
- Ez, gutxi.
- Filme bat.
- "En el nombre del padre".
- Liburutegiak ikasteko ala irakurtzeko?
- Bietarako.
- Haurrak udalekuetan ala liburutegian?
- Udalekuetan.
- Zenbat liburu irakurtzen dituzu urtean?
- 5-6 bat.
- Bat aukeratzekotan?
- Los pilares de la tierra (Ken Follet).
- Zenbat albistegi entzuten dituzu egunean?
- Bi (ETBn) eta orduero Euskadi Irratian.
- Anne Igartiburu ETBn ala Tele-5n?
- ETBn.
- Bergarara etorriko zinateke bizitzera?
- Ez.
- Ze dauka Osintxuk Bergarak ez duena?
- Dana!!
- Badakizu zer den Anorthosis?
- Anorthosis? Zer da hori?

JOKABIDE-PSIKOLOGIA KABINETEA

*Jose Ramon Fernandez
Psikologo kliniko*

Depresio, antsietate, fobia, herabetasun, portaera arazo e.a.en azterketa eta tratamendua.

Gainera, PSIKOLOGIA JUDIZIALAREN SAILEAN, dibortzio, zaintza-eskubide, tratu-txar eta halako kasuetarako peritu-txosten psikologikoak ere egiten dira.

ARGIBIDEAK: Ramon Maria Lili, 2.
Ate nagusia, eskuinaldea.
ORDUTEGIA: 15.00-20.00.
☎ 76 59 72 / 76 59 39.

TABERNA ZAHARRA

Jatetxea

**Bazkariak
eta
afariak**

Tfnoa 76 21 21
ANGIOZAR

EDEL

TAPIZDENDA

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu:

**Alfonbrak, kortinak,
kortinoiak, koltxak,
edredoiak, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14, BERGARA

BONOFOTOA



Arantzazu Idigoras

Arantzazu Idigorasek jaso du aste honetan BONOFOTOko saria, orain dela bi aste egindako galdera berak asmatu du eta. Argazkietan agertzen ziren iturriak non aurkitzen ziren galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **Fraiskozuri eta Zurragan** zen. Beraz, aste honetako **10.000** pezetak Arantzazu Idigorasi eman dizkiogu. Zorionak!!

Zein auzotako eliza-sarreran topa dezakegu San Migel Goiaingeruaren irudia duen hormazulo hau?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria:
10.000 Pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen:

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

PRESTAKUNTZA PLANA

1994/1995

IKASTARO ESKAINTZA

IKASTAROAK

- WORD PERFECT (Testu tratamendua)
- KALKULO ORRIA (Lotus 1. 2. 3)
- OINARRIZKO ELEKTRIZITATEA
- AUTOMATA PROGRAMAGARRIAK
- ZENBAKIZKO KONTROLA "TORNUA"
- ZENBAKIZKO KONTROLA "FRESA"
- PRODUKZIO ETA KOSTUEN KONTROLA
- MANTENIMENDU INTEGRALA M.A.O.
- KALITATE INTEGRALA

IRAUPENA

- 40 ordu
- 40 ordu
- 40 ordu
- 40 ordu
- 40 ordu
- 40 ordu
- 40 ordu
- 24 ordu
- 18 ordu

HASIERA

- 94-10-10
- 94-11-21
- 94-10-10
- 94-11-21
- 94-10-10
- 94-11-21
- 94-10-10
- 94-11-14
- 94-12-12



Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Departamendua



Tfnoa: 76 24 91 Faxa: 76 38 41

Miguel ALTUNA (ELEMENTALA)

institutua

BERGARA

MOTA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK

Koldo Elizalde, 8 BERGARA ☎ 76 00 00

ELECTRICIDAD
ELKAR
ELEKTRAGINTZA
☎ 76 00 00



Astebukaera honetatik aurrera, 500 jokalari lehian

Talde bakoitzak 5.000 pzta. ordaindu beharko ditu

Larunbat honetan emango zaitio hasiera Labegaraietako Futbito Txapelketako 1994-95 denboraldiari. Aurten 47 talde arituko dira lehian (500dik gora jokalari) eta bi maila izango dira. Lehen mailan 10 taldez osatutako bi multzo egin dira eta bigarren mailan, 9 taldez osatutako hiru multzo. Lehen fasean multzo bakoitzeko taldeek euren artean jokatuko dute.

Aurten eztabaida eta buruhaus-te ugari izan dituzte Antolaketa Batzordekoek txapelketa antolatzerakoan, talde asko baitira eta partiduak jokatzeko tokirik ez dago. Hori dela eta, Institutoko eta San Martin Ikastetxeko patioetan jokatzeko aukerak aztertu dira. Azken honetan zorua konpontzeko obrak laister hasiko dira. Antolatzailerik Institutorearen baimena lortu dute baina arazoa aldageletako

dutxetan ur beroa aguroegi gastatzen dela da (kalderak txikiegiak dira). Horregatik Udalarekin hizketan ari dira Pizinetako goikaldeko aldagelak (korrikan egitera joaten direnek erabiltzen dituztenak) erabili ahal izateko. Erantzunaren zai dira.

Bestalde, aurten 5.000 pzta. ordaindu beharko ditu ekipo bakoitzak txapelketan aritzearren. Diru horrekin, Kiroldegiko kantxan jokatzeko diren partiduak ordainduko dira eta, horrela, ekipoek ez dute ordaindu behar izango kantxa erabiltzen duten bakoitzean lehen egiten zen moduan. Baloiarri dagokionez, aurreko denboraldietan erabili den baloi bera erabiliko da aurten ere eta aurreko edizioetatik aurreratuta zeuden 100.000 pzta.k baloiak erosteko eta beste gastu batzuetarako erabiliko dira.

Partiduak

LARUNBATA

Barruan

09:00: Labegaraieta-Igandekoak.

10:00: Amozkibar-EH Biterrak

11:00: Ozaeta-Revienta

Kanpoan

10:00: Hartu Zamak-Patxaran Tean

11:00: Ari Ari-Soropotroak



LARUNBATA

Barruan

09:00: OH Zerezos-Angiozar

10:00: Mongatxurra-Uve Bikoitza

11:00: Bar Canalejas-Ogizun Okind.

12:00: Etxagi-Madura

13:00: Usoa-Arloteak

16:00: Bildurbarek OPEL/LAM-Ufala

17:00: Errotagain-Guadalest

18:00: Pagomendi-Kayak Os Jard.

19:00: Arkupe-Kabia

Kanpoan

09:00: Txipiron-Kriston Potruak

10:00: La Txupeta-Etxenagusia

11:00: La Juve-Shaktale

12:00: Krai-Paok de San Juan

13:00: Kriterium-Construcc. Bergara


16:00: Nahikari Holl.-Nekrofilicos

17:00: Pikapiedra-Kirolzaleak

18:00: Ezinleike-Eri

HAUR ETA
HELDUENTZAKO
KLASEAK ETA
ENPRESENTZAKOAK

ESPOLON



School of English
BERGARA

MATRIKULA IREKIA

94-95 IKASTURTEA

IRAKASLE NATIBOAK, INGELES IRAKASKUNTZAN
ESPEZIALIZATUAK.

CAMBRIDGEko UNIBERTSITATEKO

KET(I. MAILA) ADVANCED PROFICIENCY

AZTERKETAK EGITEKO MATRIKULA ZABALIK

EPEA: Irailaren 19tik 29ra

ARGIBIDEAK: Ibargarai, 31, Barruko Plaza

ORDUTEGIA: 10.00-12.30 eta 16.00-19.00

TELEFONOA: 76 03 53

CAMBRIDGEko UNIBERTSITATEKO AZTERKETETARAKO ES 438
DEBA ETA DURANGALDEKO KOMITEKO KIDEA.

Deba Bailaran Kirola euskaraz egiteko programa aurkeztu da

Asteartean aurkeztu zen Elgoibareko Kultur Etxean Deba Garaiko udaletako euskara eta kirol zerbitzuek martxan jarritako Kirola euskaraz programa. Helburu nagusia kirol arloan euskararen erabilera bultzatzea eta arlo horretan eskaintza aberats bat egitea litzateke. Bertan jakin arazi zenez, *"euskararen normalkuntzarako aisialdiak eta bereziki kirolak gero eta garrantzi handiagoa du, gero eta ordu gehiago hartzen bait ditu egunez okoz bizitzan. Gainera 14 urtez azpiko ia ume guztiak euskaraz ikasten ari dira. Baina euskara ezin dugu eskolarekin, nekearekin, notekin... bakarrik lotu. Euskara ondo pasatzearekin, disfrutatzearekin, jaiarekin... gehiago lotu behar dugu"*.

Nahiz eta kirola mugitzen duten hari asko Deba Bailaratik kanpo egon (Federazioa, Diputazioa, komunikabideak...), euskara eta kirol zerbitzuek bi arlo nagusiri heldu nahi diote: kirol arloko material sorkuntza eta kirol monitorea prestatzeko ikastaroak. Material sorkuntzari dagokionez,

oraingoz futboleko liburu bat eta kirol entrenamenduaren oinarri buruzko beste bat argitaratzeko asmoa dago. Bestalde, orain arte eman diren ikastaroetako materialak euskaratu dira etorkizunearan erabili ahal izateko eta fitxak, kartelak, etab. euskaratu nahi dira kirol federazioen laguntzaz.

Kirol ikastaroak

Kirol ikastaroak, berriaz, orain arte hiruzpalau antolatu dira eta asteazkeneko prentsaurreko beste batzuk aurkeztu zi-

ren: atletismo eta boleiboleko monitorea titulu ofiziala lortu ahal izatekoak (Elgoibarren eta Arrasaten emango dira) eta, horrez gain, Futbolaren irakaskuntza (Bergaran, abenduaren 27an, Gerardo Eskarzak emango duena), Orientazioa mendian (Oñatin, urriaren 22, 23, 29 eta 30ean), Patinajea (Elgoibarren urriaren 15, 22 eta 29an,

Josean Inarraren eskuetik), Rugby zapia (Inaki Ugartebururekin, urriaren 26an, Bergaran), Kirol bendajeak (Alejandro Altunak emango du azaroaren 12an Eibarren) eta Aurrekiroleko jokoak (urriaren 1ean Deban Josean Unsainekin). Argibide eta informazio gehiago Bergarako Kirol eta Euskara zerbitzuetan, Irizarren, jaso dezakezue.

Egitasmoa, bailarako Euskara eta Kirol Zerbitzuek jarri dute martxan



Bailarako kirolzale eta euskalzale ezagunek aurkeztu zuten Elgoibarren plan berria.

KONTSULTA BERRIA

Cristina Garciandia Mugica

DERMATOLOGIA, BERENEEOLOGIA, MEDIKU KIRURJIKOA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramon Maria Lili, 2. Ate nagusia. ☎ 76 59 39
Lagunaro Aseguruak Osasun Laguntza

iRUDI
Erlojudenda
Bitxitegia

Ibargarai, 2
☎ 76 51 65



Urisabel, Loyola taldeko atzerritar baten kontra orain dela bi urteko argazkian.

Igor Urisabel saskibaloiko lehen mailan arituko da Arrasaten

Igor Urisabel da Urbina-Maltzaga (Arrasate Saskibalo) taldean jarraitzen duen bergarar bakarra. Gogoratuko duzue, iaz Angel Mari Iñarra, Mikel Garitano eta Anioz Gabilondo ere arrasatearrek aritu ziren, baina kontu bategatik edo besteगतिक taldea utzi dute aurten hiru bergarar saskibalo jokalarari hauek. Iñarrak orain dela gutxi utzi du taldea, lan arazoak medio, eta aurten Bergaran jokatuko duen ala ez, erabakitzeke dauka oraindik. Beste biek, Garitano eta Gabilondok, aurten berriz ere osatu den Bergarako senior taldearekin jokatuko dute seguruen.


Urisabelek, urrats berri bat eman du, bere taldearekin batera lehen maila nazionalean arituko

baita aurten. Ez du lan erraza izango, arrasatearrek fitxaketa garrantzitsuak egin baitituzte maila berri honetan sendo ibiltzeko. Kanpotik 5 jokalarari berri ekarri dituzte (David Scott amerikarra tartean) eta bost jokalarari daude taldean Igorrek jokatzen duen postuan (Pivot) jokatzeko. Erronka polita beraz, eskuartean duena.

21 urte ditu, 1.98 m neurtzen ditu eta 18 urte zituenetik ari da Arrasaten jokatzen. Denboraldia urriaren 1ean hasiko du Valladoliden aurka. Hala ere, Labegaraietako kiroldegian ikusteko aukera izan genuen joan zen ostiralean, La Salle Deustoren (2. maila) aurka jokatutako aurrendenboraldiko partiduetako batean.

Parte hartze handia San Martin Kross Txapelketan

Manu Hurtado azkoitiarrak irabazi zuen larunbatean Bergaran jokatutako kross herrikoia, ibilbideko 9 Km.ak 30 minutu eta 53 segundutan eginaz. Bigarren eta hirugarren postuetan Asier Cuevas eta Juan Aldai eibartarrak sailkatu ziren. Ion Aranzabal bergararra 6. postuan sartu zen (32'28"); beteranoetan Jose Galán (32'23") arrasatearra Anselmo Gómez (32'25") bergararraren aurretik helmugaratu zen; Abadiñoako Amaia Mazorriaga izan zen lehen emakumea (38'05"); gaztetxoetan Xabier Eguren, Ion Sanchez eta Iñaki Eguren bergararrak sartu ziren lehenak, infantiletan Oliver Fernández, Fernando Nogales eta Unai Sarabia arrasatearrak eta azkenik, kadete-juniorren artean Martin Dávila, Urko Bedia eta Miguel Anguas arrasatearrak nagusitu ziren.



EGUREN
GESTORIA
Maria Pilar Eguren Diez
Kolegiatutako administrazio gestorea
Simon Arrieta enparantza 3, behea.
☎ 76 21 65 / 76 24 45

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...
Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

GALLASTEGI
Jostundegia
mahoizko lanerako
jantziak
San Pedro, 17 ☎ 76 10 85

IZADI
PILI GISASOLA
*Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua*
Zurradero 2, behea. Tfnoa: 76 58 83

SUBIJAI
Gazteentzako moda
Irizar, 1 ☎ 76 42 41

ileapaindegia
eder gela
disdira
Masterreka 7 • Tfnoa: 76 00 55



Orain dela 20 urteko San Migelak Angiozarren

Angiozarko San Migel jaiak gaur hasten direla eta, horra hor jaigiroa pizten hasteko erretratu bat. Ez, ez pentsa Karnabaletakoa denik. Beste hainbat lekutan bezala, Angiozarren ere jaietako egun batean mozorrotzeko ohitura zegoen eta haur eta helduek, armairuei errepaso bat eman ondoren, euren "gala" dotoreenak janzten zituzten. Argazki hau 1974koa da eta urte hartan Aspertuarte txaranga izan zen Angiozarren. Ikusten denez, ongi-etorri dotorea izan zuten angiozartarren partetik. Argazkian, ezkerretik eskumara:

Beheko ilaran: Igone Elorza, Asun Errarte, Garbiñe Elorza, Fernando Marzana (painueluduna) eta Anuska eta Ariadna Aranzabal (ertzean).

Bigarren ilaran: Juan Luis Arriaran, Moises Elorza, Marilu Belastegi, Alex Elizburu, Jose Felix Elizburu, Jose Angel Arriaran "Pierro" eta Jose Luis Errarte.

Atzeko ilaran: Jose Angel Mikeo, Ana Rosa Elorza, Alberto Laspiur, Amaia Elorza, Mila Elorza, Aintzane Belastegi, Arrate Elorza eta, atzekaldean, Luis Alberto Elorza.

Argazkia: Imanol Iriagarai

Siaska
Dena zure
haurarentzako
Pedro Deuna 10, Tfnoa: 76 10 39

ARTISAUTZAKO IZOKIA
GOXO-TOKI
D. Irola, 3 - Tlf. 761235
Mozialegi, 34 - Tlf. 762337
BERGARA

KONDE
PANADEROKUA
Burdinate, 1 ☎ 76 02 57

ETXEBIZITZA

Pisua salgai Zabalotegi Torrean (17. pisua). ☎ 76 33 19 (gauetz).

Garajea salgai Torreku-an. ☎ 76 18 82.

Pisua salgai Artzamendin. ☎ 76 44 60.

Pisu amueblatua salgai Bolun. ☎ 761075 (gauetz).

Pisua salgai Zubiaurren. ☎ 76 25 19.

Pisu amueblatua alokatzen da Matxiategin. ☎ 76 46 15.

Zubiaurren **pisua** alokatzen da. ☎ 76 13 85.

Garajea salgai Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

Garajea saldu edota alokatzen da Ibargarai kalean. ☎ 76 44 25.

Pisua salgai Martokon. ☎ 76 14 60.

Pisua salgai Martokua 18an. ☎ 76 00 51.

Pisua salgai Artzamendi 17n. ☎ 76 10 55.

Pisua alokatzen da Kruz Gallastegin. ☎ 76 49 87 (eguerdian eta gauetz)

Pisua alokatzen da San Pedro 22an. ☎ 76 13 23.

Garajea salgai Ibargarain. ☎ 76 36 69.

Pisua salgai San Miguel kalean. ☎ 76 02 13 (goizez).

Garajea salgai Kruz Gallastegin. ☎ 76 48 36.

DENETARIK

Datorren ikasturterako pisu bila nabil Gasteizen. ☎ 76 28 17.

Opel Kadett 1800 salgai. SS-AH. ☎ 76 58 28.

Saguzaharrak ikusten badituzu, deitu. ☎ 76 50 11 (Rosa).

Ford Fiesta Ghia SS-T salgai. ☎ 76 15 40/16 18.

Erleak saltzen ditut. ☎ 76 34 28.

Bi neska pisu bat konpartituko genuke Bilbon. ☎ 76 50 67 (Jaione).

Korredore **bizikleta** salgai. ☎ 76 54 24.

Bi neska behar dira Donostian (Antiguon) pisua osatzeko. ☎ 76 21 09.

21 urteko **neska** batek edozein motatako **lokalak garbituko** lituzke. ☎ 76 51 76 (Leire).

Bi **bizikleta** salgai, 1-3 urte (plegablea) eta 3-6 urtekoentzat. 5.000-6.000 pta. ☎ 76 25 99.

Algortan pisua osatzeko bi neska behar dira. ☎ 76 41 59 (Amagoia).

Triall Ossa (350 cc.) motoa salgai. ☎ 76 37 42.

Lorategiak zaindu edota konpontzeko lanak egiten ditugu. ☎ 76 34 21.

Donostian (Grosen) pisua konpartitzeko bi neska behar dira. ☎ 76 30 00.

Opel Corsa 1200 kotxea salgai (SS-AJ). ☎ 762991.

Ordenadore merke bat erosiko nuke. ☎ 76 08 19.

LANA

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

OHO, BBB eta **LH** klaseak. ☎ 76 06 50 (Josean).

OHO eta **BBB** klaseak. ☎ 76 24 31 .

Zaharrak zaintzen ditut (gauetz ere bai). ☎ 76 50 63 (Mari Jose).

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 42 36 (Arantxa).

OHO eta **ingeles** klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Neska-mutikoak zainduko nituzke. ☎ 76 29 81.

Ingeles Filologian lizentziatuak, ingeles klaseak emango lituzke. ☎ 76 17 36.

Ingelesezko klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Matematika finantzieroko klaseak. ☎ 76 05 43.

Aleman klaseak. Tituloduna. ☎ 76 12 77 (Maite).

Neska-mutikoak zaindu/etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 25 81 (Leire).

OHO eta **LH** klaseak ematen ditut. Irakasle titulatuak. ☎ 76 17 85 (Alex Gardoki).

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 26 63.

Hildakoak

Luis Bikuña Artolazabal

irailak 14, 80 urte

Fermina Aiastui

irailak 17, 83 urte

Isabel Sanabria Rodríguez

irailak 20, 83 urte

Jaiotakoak

Martin Mujika López

irailak 15

Atsedeen zentrua

LOKARTY

Koltxoi-Denda

Orain SORALUZEN

EZPELETA
etxea

Harizko eta kotoizko goimailako izara eta mantelak

Barrenkale 44 BERGARA

ZUBIETA
elektragintza

- ✓ Motorren bobinaketa
 - ✓ Era guztietako instalakuntzak
- Kruz Gallastegi, 2 beheak
☎ 76 23 48

winterthur



Zure eta zure familiaren osasuna munduko altxorrik preziatuenak direlako, eta zure jubilazioak bizi-kalitate ona merezi duelako Winterthur-ek eskaintza berezia egingo dizu:

**Winterthur Osasuna eta
Winterthur Jubilazioa**

Winterthur-ek zurekin pentsatu du eta ospatzeko afari batera gonbidatzen zaitu Zumelaga Jatetxean.

Zure esanetara gaude.

Seguraj, C.B. Zurradero kalea, 6. 00570 Bergara. Tfnoa: 76 17 40.